



SARE
GERNIKA-LUMO

ISPILUE PROIEKTUAREN 5. URRATSA BERREGOKITU DUGU: 2019/20 IKASTURTEA

ZERGATIK BERREGOKITZAPENA?

Hiru arrazoi nagusi daude:

1.- SAREk datorren udaberritik aurrera jendartearen aktibazio soziala bultzatuko duen dinamika iraunkor bat abiatuko du. Denboran luzatuko da; ahalik eta herri, eremu eta norbanako gehien inplikatzeko bilatuko du, eta erronka bateratu bati ekarpen anitza egitea bultzatuko du. Gure parte-hartze aktiboa eskatuko du, zalantzarik gabe:

- Azarotik eta otsailaren 15ean burutuko den SAREren Batzar Orokorra bitartean hausnartu, zehaztu, partekatu eta garatzen gabiltza; eta asmoa udaberrian praktikan martxan jartzea da.

2.- *Ispilue* proiektua martxan jarri genuenetik, honako hau **5. urratsa** (ikasturtea) da. Ibilbide oparoa izan du, eta ikasturte honekin **ziklo bat beteko** duela ondorioztatu dugu. Arrazoiak anitzak dira, baina laburbiltzeagatik:

- Gernika-Lumo, subjektu gisa dispertsio eta urrunketa politika amaitzearen alde posizionatzea ibilbide luzeko erronka da, etapaz etapa, fasez fase bete behar dena. 5 urrats hauek, lehen etaparen baitan kokatzen ditugu.

- Ez genituen tresnak sortzea oinarritzat kokatzen genuen, eta zenbait sortu ditugu bidean (Erradiografiak, Aterabidetik, Oroimen Erradiografia, webgunea).

- Esparru ezberdinen aktibazioa eta elkarlana beste ezaugarri garrantzitsu bat da, eta pausuak eman ditugu eremu honetan ere.

3.- Hirugarren faktore bat aipatzea ere ezinbestekoa da: **Kepa Arronategi preso gernikarrak gaixotasun sendaezina du.** Eta horrek, iazko ikasturtetik, gure jardueraren berregokitzapena ekarri du. Hau esaten genuen iazko plangintzan: *Kepa Arronategik pairatzen duen gaixotasunaren harira, gure dinamika bere etxeratzea aldarrikatzearekin uztartuko dugu.* Gaiak duen larritasuna eta urgentzia aintzat harturik –denboran luzatzen ari dena gainera–, gure jardueran presente dugu uneoro (urrian Gernika-Lumoko ospitale aurrean burutu genuen ekimena, horren lekuko).



SARE
GERNIKA-LUMO

ONDORIO BATZUK ATERA DITUGU:

Hiru ondorio nagusi:

1.- SAREk udaberritik aurrera bultzatuko duen dinamikak gure jarduera baldintzatuko du. Azpimarra berezia eskainiko diogu erronkari.

2.- *Ispilue* proiektuaren lehen fasearen azken ikasturtea da honakoa. Beraz, galdera garrantzitsu bati erantzun beharko diogu datorren udatik aurrera: Zein da bigarren fasearen helburua, mamia, ezaugarritzea? Gaurdanik geure buruan dantzan dabilen galdera da... erantzuna topatuko diogu guztion artean.

3.- Bitartean, baditugu hainbat eta hainbat ekinbide lan handia eskatzen dutenak (aurtengo ikasturte hasieran aipatu genituen sarekideen mintegian). Batzuk gogoratzearen:

- **Sare On Irratsaioa** Biztu Irratian. Hamabostero egingo dugu (urri bukaeran jarri genuen martxan).

- **Eremu ezberdinekin elkarlana:** Astra Zinemarekin film emanaldia abenduaren 17an, udal-mozioa Gabonetarako, iritzia zabaltzeko kolaborazioak tarteka, giza eskubideak eta konponbidea ardatz duen mahai-ingurua, Gernika Memoriaren Lekuko plataformako partaide gisa apirileko urtemuga inguruko ekimena, Astra Iluntzeak Ongi Etorri Errefuxiatuekin uztailen...

- **Erreferentziazko datak:** abenduak 31n Gabon Zaharretako mobilizazioa, urtarrilak 11n Bilboko manifestazioa, apirilaren 7an osasunaren nazioarteko eguna (gaixotasun sendaezinak dituzten presoek etxeratzea), eta ekaina hasierako manifestazioa.

- **Memoria:** gure egitasmo propioa prestatzen gaude: presoek Gernikan eraikitako eraikin-azpiegituren mapa, hain zuzen ere.

Eta, azkenik, ondorio hauek beste ondorio honetara garamatzate:

- **Argazkigintza proiektua ez dugu aurten egingo.** Hausnarketa eta gogoeta handia sortarazi digun afera da, eta emaitza horixe da. Aurten ez egiteak ez du esan nahi betirako alboratzen dugunik. *Ispilue* proiektuaren bigarren faseari eta bere helburu-ezaugarriei ekarpena egiten dion edo ez ebatziko dugu bere momentuan.

Gernika-Lumon, 2019ko azaroaren 19an.